

UPV/EHUko GERENTEAREN 2017ko OTSAILAREN 15eko ERABAKIA, "IRAKASKUNTZAN ETA IKERKETAN LAGUNTZEKO MAILA ERTAINENKO TEKNIKARIAK (MEKANIKA)" IZENENKO LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKOZ EBAZTEKO DENA. LAN- POLTSA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO DA.

UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez dei egin zen, "Irakaskuntzan eta Ikerketan Laguntzeko maila ertaineko teknikariak (Mekanika)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua egiteko, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren berezko premiak aldi baterako bete daitezzen.

Deialdiaren zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrira, hautaketa-prozesua behin amaiturik, epaimahaiak ordenatu zituen lehiakideak, eta proposamen hori 2017ko urtarrilaren 12an eman zen argitara seigarren oinarriaren seigarren atalean zehaztutako tokietan eta, honen ondoren, deialdiak dioenari jarraiki, zerrenda igorri da Gerentziara prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal zitzaion EHUko gerenteari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

Erreklamazio egiteko zabaldutako epean ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, Gerentziak, errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- "Irakaskuntzan eta Ikerketan Laguntzeko maila ertaineko teknikariak (Mekanika)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2016ko azaroaren 24an argitaratuta.

Bigarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesatuak berraztertze errekurtsioa aurkez diezaioke Gerentziari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake zuzenean administrazio- auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe horiek.

Leioan, 2017ko otsailaren 15ean.

Errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean eskuordetutako eskumenak erabilia (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Artetxe

GERENTZIA
GERENCIA

UNIBERSITATEA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA